

## **ESKUMEN ESPARRU OBJEKTIBOA**

Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak eskumena du bi gai motatan, honako araudi honen arabera: 9/2017 Legea, azoaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE direktibak (SPKL).

1. Kontratazio alorreko errekurtso bereziak, hautazkoak eta administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik honako hauen aurka jar daitezkeenak:

a) kontratazioa arautuko duten baldintzak ezartzen dituzten lizitazio iragarkiak, baldintza agiriak eta gainerako dokumentuak;

b) esleipen prozeduran egindako tramite egintzak, baldin eta esleipenean zuzeneko zein zeharkako eragina badute, prozedurak aurrera jarraitu ezina badakarte edo eskubide edo interes legitimoentzako defentsa gabezia edo kalte konponezinen bat ekartzen badute. Dena den, egoera horiek ematen direla kontsideratuko da erabaki hauek hartzen dituzten mahaiaren edo kontratazio organoaren egintza hauetan: pertsona edo enpresa lizitatzailleak onartu edo baztertzekoetan, eta eskaintzak onartu edo baztertzekoetan, neurritz kanpoko beherapena izateagatik baztertu eskaintzak barne hartuta, SPKLko 149. artikuluaaren aplikazioaren ondorioz;

c) esleipen erabakiak;

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan xedatutakoa ez betetzean oinarritutako aldaketak, ulertzen delako aldaketa horrek esleipen berri baten xede izan behar zuela.

e) bitarteko propioei emandako mandatuak, legezko beharkizunak betetzen ez badira.

f) emakiden erreskateei buruzko erabakiak.

Egintza horiek kontratu mota hauei dagozkienean:

a) Obra kontratuak, hiru milioi eurotik gorako balio zenbatetsia dutenak, eta hornidura nahiz zerbitzu kontratuak, ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia dutenak.

b) Esparru akordioak eta hornidurako sistema dinamikoak, aurreko letrak tipifikatutako kontraturen bat xede dutenak, eta horietan oinarritutako kontratuak.

c) Obra edo zerbitzu emakidak, hiru milioi eurotik gorako balio zenbatetsia dutenak.

d) Administrazio kontratu bereziak, baldin eta, dituzten ezaugarriak direla-eta, ezinezkoa bada lizitazio prezioa finkatzea; edo ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia dutenak.

e) Diruz lagundutako kontratuak, erregulazio harmonizatuari lotutakoak eta SPKLren 23. artikuluan aurreikusitakoak; eta mandatuak, beren ezaugarriak direla-eta ezinezkoa denean haien zenbatekoa finkatzea, edo zenbateko hori

ehun mila euro edo gehiago denean, iraupen osoa eta luzapenak kontuan hartuta.

**2.** Ur, energia, garraio eta posta zerbitzuen alorretako kontratazio prozedurei buruzko 31/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, 101.1.a) eta 109.etik 111.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako kontratuak esleitzeko prozeduretako erreklamazioak eta deuseztasun arazoak.